

2021EKO MARTXOAREN 25AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

MODUA: Presentzialki

TOKIA: Batzar aretoa

EGUNA: Hogeita bosta

HILABETEA: Martxoa.

URTEA: Bi mila eta hogeita bat.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak eta erdi

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

BILDUAK: Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

1.- AURREKO AKTA. Aurreko aktaren onespena. 2021-02-25.

Aho batez onartu da.

2.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

- **OBRA ZIURTAGIRIA:** ANTZIZAR KIROLDEGIAN KIROL-ZOLADURA BERRIA JARTZEKO OBRAK EGITEKO ETA SASKIBALOI-SASKIAK HORNITZEKO, LAUGARRENGO ZIURTAGIRIA. 2020PROB0002.

Aho batez ondorengo erabakia hartu da: "Antzizar kiroldegian kirol-zoladura berria jartzeko obrak egiteko eta saskibaloi-saskiak hornitzeko" obrei buruzko obren 4. eta azkena den ziurtagiria, **13.377,20 €**koa (BEZ barne).

- **OBRAK KONTRATATZEA:** PROIEKTUA ETA BALDINTZA ADMINISTRATIBOA ONARTZEA, BEASAINGO MURUMENDI IKASTETXEAN ERABILERA ANITZEKO ARETOA ERABERRITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO. 2020OBMA0015

Lurralde batzordearen proposamenaren berri eman da, aipatutako obrak kontratatzeke proiektua eta baldintza pleguak onartzea eta kontratazioa deialdi publiko irekiaren bidez egitea, ondorengo xehetasunekin:

1.- *Prozedura:* irekia publikitatearekin. Lizitazio elektronikoa.

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa:* 139.174,49 €, BEZ gabe

4.- *Egikaritze epea:* 10 aste

5.- *Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:* *Klasifikazioa:*

Urteko negozio bolumena, edo urteko negozio bolumena **kontratuaren esparruan**, azken hiru ekitaldietako ekitaldirik onena kontuan hartuta,

enpresaren eraketa edo jardueren hasiera dataren edo eskaintzak aurkezteko dataren arabera.

Negozio bolumenak gutxienez ere izan beharko du kontratuaren balio zenbatetsia x 1,5 (208.761,73 €)

6.- Kaudimen teknikoak:

- Azken bost urteetan zehar egikaritutako obren zerrenda, egikaritze zuzenaren ziurtagiri bitartez egiaztatuak; ziurtagiri horietan adierazi beharko dira obren zenbatekoa, datak eta egikaritze tokia eta bertan baieztatu beharko da lanbidearen ohiko arauen arabera burutu zirela obrak eta behar bezala amaitu zirela; kasuaren arabera, ziurtagiri hauek zuzenki helaraziko dizkio agintaritza eskudunak kontratazio organoari.
- Titulu akademiko eta profesionalak eta, bereziki, kontratuaren egikaritzearen arduradunarenak edo arduradunenak, bai eta zuzenki egikaritzearen ardura izango duten teknikariak ere (ikus 14. atala).

500.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuetan, kontratista berriki sortutako enpresa bat denean, hau da, azken bost urteetan sortutakoa, enpresaren gaitasun teknikoa egiaztatzeko aurreko b) eta c) paragrafoetan aipatzen diren bitartekoetako bat edo bat baino gehiago baliatuko da/dira, baina ez zaie aplikagarria izango a) paragrafoan obra kopuru jakin bat egikaritzearen inguruan xedatutakoa.

Klasifikaziorik ez dago, zenbatekoa 500.000 € baino txikiagoa delako.

Baina lizitatzailerak salbuetsita egongo da bere ekonomia eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa justifikatuzetik, baldin eta honako sailkapen hau egiaztatzen badu:

C taldea: eraikuntza

2 azpitaldea: metal-arotzeria

1.kategoria: = < 150.000 euro

J taldea: instalazio mekanikoak

2 azpitaldea; Aireztapena, berokuntza eta klimatizazioa

2.kategoria: = 150.000 euro < kopurua=< 360.000 euro

7.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: 26 egun kontratazio plataforman argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.

8.- Adjudikazio irizpideak:

Balorazio automatikoa:

- Proposamen ekonomikoa: 60 puntu.

- Berme epea handitzea: 10 puntu.

Balorazio ez automatikoa:

Memoria teknikoa: 30 puntu.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profileen argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailerak administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

11.- Kontratua gauzatzeko baldintza berezia, gizarte arlokoa: Kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatu behar direnean eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak plantillan emakumeen ordezkari desorekatua duenean kontratuaren exekuzioari lotuta, enpresak, kontratua exekutatzeko eta exekuzio epe osoan zehar, gutxienez emakume langile berri bat kontratatu beharko du edo emakume baten aldi baterako kontratua mugagabe bihurtu beharko du. Plantilla desorekatutzat joko da, plantilla osoan emakumeak % 40tik behera badira."

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut